

# NOT IN MY ... TOWN

School-team-street-Gaztetxoko

## Programari buruzko informazio orokorra

Not in my... programak gazteen artean gerta daitezkeen diskriminazio-egoeren inguruko sentsibilizazioa du xede. Ohiko tokietan gertatzen direlarik, hau da, eskolan, futbol edo saskibalo taldean, kalean, gaztetxokoa... beldurrarazte, indarkeria eta bullying bilaka daitezke horrelako egoerak.

Ikus-entzunezko bitartekoak erabilia, gazteek eurek gai honen inguruko sentsibilizazio kanpainak sortzea du helburu programak. Beraiek izango dira ideiarene sortzaileak, beraiek garatuko dute, eta beraiek grabatu, interpretatu eta editatuko dute gehien jota hiru minutuko iraupena izango duen publizitate-spota.

Lehiaketa formatua izango du programak, eta transmititu nahi ditugun baloreak (elkarren arteko errespetua, eta harreman seguru eta osasungarriak) ondoen islatzen dituzten bideoak sarituak izango dira.

Ametxgazteriak garatzen duen Gauero programaren gala batean gauzatuko da sari-banaketa, eta lan guztiak proiektatuko dira bertan. Gune berezia sortuko du Ametxgazteriak bere webgunean lehiaketari buruzko informazioa emateko. Horrezaz gain, Ametxgazteriko hezitzaile batek bideoak egiteko laguntza emango die hala eskatzen diotenei Gaztetxokoa zabalik dagoen orduetan. Laguntza hori proposatzen diren gaien ikuspuntuari lotutakoa izango da. Era berean, bideoa grabatzeko eta editatzeko alderdi teknikoekiko zerikusia duten kontuen gaineko aholkuak ere emango dituzte Gaztetxokoa eta Gazteentzako Informazio Bulegoan, egituren ohiko ordutegian.

Honakoak dira lehiaketan bereiziko diren mailak:

11-14 urte	-Epaimahaiaren saria	200€ dendariak elkartearen baleetan
	-Ikusleen saria	140€ dendariak elkartearen baleetan
	(webgunean egingo den bozketaren bidez)	
+14 urte	- Epaimahaiaren saria	360€ dendariak elkartearen baleetan
	- Ikusleen saria	280€ dendariak elkartearen baleetan
	(webgunean egingo den bozketaren bidez)	

Ikastetxeetara ere informazioa helaraziko da eta, interesa izanez gero, ikastetxeetan bertan garatu ahalko dira, osorik edo zati batean, bideoak edo bertan proposatzen diren gaiak. Horrela, bideoak aurkeztu ahalko dira taldeka, mailaka...

Zenbait pauso dira programa osatuko dutenak:

1. pausoa

Informazio-gaia:

-Harreman osasungarriak inguru seguruetan.

- Beldurraraztea espazio fisikoetan eta sarean.
- Bullyinga.
- Konponbideak.

## 2. pausoa

- Bideoak sortzea, aurreko urratsaren emaitza diren ideiak garaturik.

## 3. pausoa

- Internetera igotzen den materialarekin lotuta dauden arauen ezagutza, pribatutasuna, bideoen egiletza eta orijinaltasuna, baimenak adin txikikoak direla eta ...
- Beste lagun batzuek egin dituzten bideoak ikustea, lantzekoa den gaiaren sozializazioa sorturik.

## 4. pausoa

- Sari-banaketarako saioa.

Hauexek dira, berriz, programaren helburuak:

- Gizarte-arlokoak: Hiritar arduratsuak sortzea, ezberdina denari errespetua diotenak, eta gazteen arteko harreman osasungarri eta seguruetarako inguruak egokitzea. Demokrazia-baloreak sustatzea eta gazte aktiboak bilatzea, hala toki-erkidegoan nola maila globalean.
- Artearen arlokoak: Kamerak erabiltzea, bideo-edizioa, ideien ikus-entzunezko garapena. Interpretazioa, musika, dantza...
- Maila pertsonalekoak: Gizarte-gaitasunak, norberaren bururaren ezagutza, familia-inguruen, eskola edota kirol mailetakoen kontzientzia, gatazken konponketa...

Beste toki batzuetan garatu diren antzeko programen emaitza diren bideoak:

[http://www.edu.gov.mb.ca/k12/safe\\_schools/nims/videos/takes\\_one.html](http://www.edu.gov.mb.ca/k12/safe_schools/nims/videos/takes_one.html)

[http://www.edu.gov.mb.ca/k12/safe\\_schools/nims/videos/pink\\_shirt.html](http://www.edu.gov.mb.ca/k12/safe_schools/nims/videos/pink_shirt.html)

[http://www.edu.gov.mb.ca/k12/safe\\_schools/nims/videos/are\\_you\\_ok.html](http://www.edu.gov.mb.ca/k12/safe_schools/nims/videos/are_you_ok.html)

Gogorutzen duzu eskola garaia?

Bizitzan bere kutsua utzi zizun irakaslerik gogokoena?

Jolaskide izan zenituen lagunak?

Partaide izan zituzten taldeak eta klubak?

Gutariko askorentzat sasoi politen oroitzapena da eskola garaia. Klaseak dibertigarriak izaten ziren eta etorkizuna, berriz, zabal-zabalik ageri zitzaigun leihoa.

Zoritxarrez, esperientziak ez ziren hain onak izan guztientzat. Kideen diskriminazioa pairatzen zuenik ere izaten zen. Bazterturik ibiltzen zen zenbait lagun, bullyingaren mehatxupean. Beldur eta kezka iturri izaten zen leku publikoetan zehar ibili beharra, eskola, etxera bidea ere bai; norberaren segurtasunagatiko beldurrak airean ibiliko ziren sarri askotan.

Hezkuntza-erkidegotik, ikastetxeetatik eta Ametxgazteriatik kontzientzia sortu nahi dugu geure herrian gaur egun gerta daitezkeen diskriminazioaren, indarkeriaren eta sufrimenduaren aurrean.

Horretarako jarri dugu abian lehiaketa hau. Eta pauso xume batzuk atondu ditugu, zeri buruz ari garen hobeto ulertzeko lagungarri gerta dakizkizukeenak eta zeu ere konponbidearen bila partaide izan zaitezkeela erakutsiko dizutenak.

## **Zer da beldurraraztea?**

Beldurrarazteari bullying ere esan ohi zaio, eta norberaganatzen den portaera da. Pertsona batek, dela maila fisikoan, dela umiliaturik edota, beste barik, izututa, beste pertsona bat behin eta berriro eta nahita gaizki tratatzen duenean gertatzen da beldurraraztea.

Beste pertsona batzuk txarto tratatzen dituzten asko beldurraraziak izan dira beraiek ere sarri askotan.

Beldurraraztearen eraginez, kezka sorrarazten duen ekintza estresagarri bilaka daiteke egunero eskolaratzea, jolastokira irtetea, Gaztetxokora edota entrenamenduetara joatea...

## **Beldurrarazte-motak**

Honakoak dira beldurrarazte-motarik ohikoenak:

-Ahozkoa: Mespresua, esaldi, goitzen edota irain laidogarriak, asmo txarrez eginak.

-Fisikoa: Pertsonari edota beraren ondasun materialei egiten zaizkien zauriak edo kalteak.

-Psikologikoa: Taldetik baztertzea, sabotajea beraren ekintzetan.

-Ziber-beldurraraztea edo baliabide elektronikoen bidezkoa: Irudi iraingarrien bidalketa, sare sozialetan zabaltzen diren txutxu-mutxuetan parte hartzea, testu-mezu, whatsapp edo telefono dei jazarleak.

Arrazaren edo sexuaren ziozko irainak, sexuarekin lotuta dauden eta gogoko ez diren komentarioak eta begirada laidogarriak ere beldurraraztetzat jotzen dira.

## **Nortzuk izaten dira harroputzak?**

Edozein motatako familian, erkidegotan eta adin taldetan gerta daiteke portaera beldur-arazlea. Gazte zein nagusi, neska zein mutil, gizon nahiz emakume... den-denak egon daitezke euren bizitzako momenturen batean beldurrarazte edo bullying egoera batean nahasturik.

## **Nola gertatzen da beldurraraztea?**

Beldurrarazte kasuetan beti izaten dira hiru alderdi: Beldurra eragiten duen pertsona, pairatzen duena eta larderia ikusten dutenak, lekukoak.

Batzuetan beldurraraztearen agintea eta garrantzia areagotzen dituzte lekukoek, arreta eskainita, zer gertatzen den ikusteko gelditurik. Sarritan ez dute, ez laguntzarik eskaintzen, ez beste batzuk egoeraz ohartarazten. Beldur izaten dira, beraiei ere berdin egingo ote dieten. Horrela, trabarik gabe irauten dute larderiak eta bullyingak. Hezkuntza erkidegoen eta gazteriarentzako zentro

publikoen ardura da ziurtatzea horrelako egoerak salatzen dituztenek ez dutela ondoriorik jasango.

Azterlanek erakusten dutenez, 10 segundotik behera irauten dute larderia-egoerek norbaitek tratatu horiek jasaten ari den pertsonaren izenean esku hartzen duenean.

Garrantzitsua da inor arriskutan ez jartzea, eta honakoak gogoratzea:

Ez da indarkeria fisikorik erabili behar. Ozen eta argi hitz egitea nahikoa izaten da bullying egoera geldiarazteko.

Hitz egin zure konfiantzakoa den pertsona heldu batekin. Etxean ere hitz egin horretaz.

Ez gelditu begira, ikuskizuna balitz bezala.

Animatu besteak ere sala dezaten beldur-arazletzat jo daitekeen egoeraren bat ikusiz gero.

Ez da berdina pertsona batekin hitz egin eta eragozpen gehiago sorraraztea, edo berarekin hitz egin arazotik libratzeko. Biktimei laguntza emateko hitz egin behar da eraso gertatzen denean.

## **Bai neskak eta bai mutilak, denak izan daitezke beldur-arazle**

Botere eta kontrol nahia asetzeko beldurrarazten dute mutil askok. Neskak, berriz, gizarte beharizanezi, harreman pertsonalei eta gainerakoekiko loturei erantzuna eman nahian gertatzen dira gehienetan beldur-arazle.

Hori horrela, neskek sarritan taktika emozionalak erabiltzen dituzten besteak beldurtzeko. Neskek, maiz, honelakoak egin ohi dituzte: zurrumurruek zabaldu, talde-jardueretatik norbait baztertu, bazterketa arrazistak, sexuaren ziozkoak... Mehatxu-mezuak bidaltzen dituzte Internet, sare sozialak edota telefonoa erabilia. Indarkeria fisikoa ere erabil dezakete neskek.

Mutilak zuzenagoak izaten dira oro har, eta metodo argiagoak erabiltzen dituzte: borrokak, zapalketak, irainak, isekak, komentario umiliagarriak sexualitatearekin edo sexuarekin lotuta... Ziberbullyinga eta sare sozialak ere erabiltzen dituzte, ordea.

## **Zer egin dezake familiak?**

### **Helduei ikasten diete umeei eta gazteei**

Jendearekin harremanak izateko bitartekoak erakutsi, frustrazioa kontrolatzen, ezberdintasunak onartzen eta taldearen presioa gorabehera moldatzen irakutsi. Erakutsi zer egiten duzun ezberdintasunez era lasaian eta positiboan konponbidea emateko. Azaldu nola eusten diozun lasaitasunari.

Erreparatu zenbat denbora ematen duten umeeek telebista aurrean eta sakelako telefonoa erabiltzen. Egin zerbait saio ezegokiak ikusten badituzte edo orrialde antisozialetan, bortitzetan... ibiltzen badira.

Ez utzi seme-alabei indarkeriaren, mehatxuen edota larderiaren mende jar ditzaketen egoeretan jarduten.

Azaldu nola jokatzeko duzun sentimenduekiko.

Denok behar dugu laguntza noiz edo noiz. Behar baduzu, eskatu laguntza. Ikus dezatela seme-alabek arduratu egiten zarela.

Gogora iezaiezu aditzea eta laguntzea dagokizula.

### **Eginez ikasiko dute umeeek eta gazteek**

Lagundu egoera beldur-arazleetan erantzun egokiak pentsatzen eta praktikatzeko. Lagundu gaiari buruz pentsatzen eta jokabide egokia zein izan daitekeen ikusten, beldurra eragiten aritzen direnei.

Erakutsi nola azaldu desadostasuna, nola antzeman manipulazioari, eta nola errespetatu gainerakoaren espazioa.

Hitz egin egoera latzez, aldeko eta kontrako puntuak aintzat hartuta.

Bidal iezaiezu feedback positiboak erabaki segurua eta egokiak hartzen dituztenean.

Ikas ezazu honelako egoerei buruz, eta partekatu ezagutza eta informazioa.

Animatu nork bere interesak eta trebeziak gara ditzan. Aspertuta egotea arazoaren iturri nagusietako bat da.

### **Erabil ezazu denbora besteei aditzen**

Gainerakoaren alde egin dezakezun gauzarik garrantzitsuena aditzea da, laguntza eta erosotasuna eskaintzea. Jakinaraz iezaiezu une latzetan laguntzeko zuzenak. Gertatzen dena gertatzen dela, beldur-arazlea, beldurtua edo ikuslea izan, antzekoak izan daitezke ulertezintasun, bakardade eta laguntza-beharraren sententzioak. Ulertzen dituzula eta arreta eskaintzen diezula sumatuz gero, bakarrik ez daudela sentituko dute.

### **Gazte bat jazarpena pairatzen ari delako seinaleak**

Zauri fisikoak erraz ikusten dira. Bada, ordea, larderia pairatzen dela adierazten duen bestelako seinurik ere:

- Aldaketak ohiko jokabidean, batez ere gizarte-harremanetan.
- Depresioaren, antsietatearen eta isolamenduaren sintomak.
- Beldurra leku jakin batzuei: ikastetxeari, jolastokiari, parkeari, Gaztetxokoari, lagun baten etxeari...

- Negarrak talde-ekintzaren baten aurretik edo ostean, dela eskolakoa, kirol arlokoa edo aisialdikoa.
- Sarriagotan gaixotzea.
- Klaseetara, entrenamenduetara ez joatean pentsatzen hastea, zaletasunak bertan behera uztea.
- Lehenago interesgarri gertatzen zitzaizkien gizarte-ekintzengatiko interesa galtzea.
- Beraren objektuak hondaturik agertzea, edota dirua edo beraren gauzak galtzea, inolako azalpenik gabe.
- Bat-batean, sakelako telefonoagatiko edo Internetengatiko interesa galtzea.

### **Gazte bat beldur-arazle izan daitekeela erakusten duten seinaleak**

Onartzen zaila da, baina batzuetan gure lagunak, kideak, seme-alabak dira beste batzuk beldurtzen aritzen direnak. Hauexek dira hori gertatzen ari dela erakuts dezaketen zenbat zeinu:

- Aldaketak ohiko portaeran, bereziki gizarte-arloan.
- Behin eta berriro aldatzen ditu adiskideak.
- Haserrearen, depresioaren, antsietatearen eta isolamenduaren sintomak.
- Barkatzeko zailtasun handia.
- Umore-sen ezegokia edo iraingarria.
- Sarritan bisitatzen ditu leku jakin batzuk: dendak, futbol zelaiak, ikastetxea... horretarako motiborik eduki ez arren.
- Isila da, besteak epaitzen ditu, besteei egozten die errua.
- Klaseetara, entrenamenduetara ez joatean pentsatzen hasi da, zaletasunak bertan behera uzten.
- Lehenago interesgarri gertatzen zitzaizkien gizarte-ekintzengatiko interesa galdu du.
- Dirua, jateko gauzak edota bestelakoak ditu, azalpenik eskaini ez arren.
- Oso jokaera itxia erakusten du telefonoa edo ordenagailua darabilenean.
- Ikastetxeko, kirol taldeko edo Gaztetxokoko ohartarazpenak jaso dituzue beraren portaera dela eta.

### **Bideoa nola egin**

#### **Hautaketa-irizpideak**

- Konponbidea enfokaturik dago bideoan?
- Idea eta mezu positiboak aurkezten dira bideoan?
- Bideoak inpaktua eragiten dio ikusleari?
- Errealista da bideoa?
- Adinerako egokia da bideoa?

Gomendagarria da gidoiari eustea:

- Gazteek darabilten hizkuntzan idatzita dago gidioia.
- Aurreko puntuko irizpideak ditu oinarri gidoiak.
- Gazteen testuingurua eta euren esperientziak uztartzen ditu gidoiak.

## **Produkzio plana**

Edukia:

- Erabakia hartu: NOR? Nortzuk dira bideoko pertsonaiak? Bertan ageri direnak beldurraraziak dira? Begiratu besterik ez dute egiten? Beldurrarazi besterik ez dute egiten? Beste pertsonaiarik bada? Nork erabiliko du kamera? Nork beharrezkoa den materiala ekarri? Eta nor izango da zuzendaria? Nor arduratuko da makillajeaz? Eta atrezzoaz?
- Erabakia hartu: ZEIN? Zein izango da bideoaren istorioa? Zein arazo mota planteatuko dugu, eta zein konponbide? Zein izango da gertaera?
- Erabakia hartu: NON: Non garatuko da bideoa? Badago toki horretan grabatzerik? Baimena eskatu behar da? Dekoratu sor dezakegu? Nola lortuko dugu ahalik eta errealistena izatea?

## **Zenbait galdera**

- Bideoak ba ote dakar azaltzen den egoerarentzako konponbiderik?
- Bideoak betetzen ote du arau orokorra? (30 segundoko iraupena badauka ere, aurkezpena, korapiloa eta amaiera izan behar ditu).
  - Aurkezpena: Pertsonaiak eta egoera azaldu behar ditu.
  - Korapiloa: Gertaera izango da korapiloa.
  - Amaiera: Irtenbidea da amaiera. Amaierak argia izan behar du, seguru egon horretaz.
- Irudiaren eta soinuaren kalitatea ona da? Soinuak argia izan behar du, ulergarria, eta irudiak ere, albait argienak.

## **Grabazioa egiteko urratsak**

Prest zaude? Ondorengo guztiak lotuta izan behar dituzu:

- Bateria kargaturik eta gertu dago.
- Kameran memoria-txartela daukazu, edo behar adinako memoria.
- Gidoia eskuartean daukazu, eta grabatzeko behar duzun guztia ere bai: materiala, kideak, baimenak...

Ez da ezinbestekoa bideoak soinua edukitzea baina, horrela bada, kontu hauek ere komeni zaizkizu:

- Soinu desatseginak desagerrarazi (haizea barne).
- Ahal izanez gero, erantsi musika grabazioari (hobe da, beti ere, editatzean eranstea, grabatzean baino).
- Aukeran, erabil itzazu mikrofonoak.

Argia:

- Barrualdeetan grabatzen baduzu, erabili ahalik eta argi gehien.
- Kanpoaldean grabatzen baduzu, berriz, saia zaitez eguzkia aurrez aurre izan ez dadin.
- Kontuz itzalekin. Erreparatu, batez ere, pertsonen aurpegiei.

Grabazioa:

- Hobe duzu tripodea erabili.



- Eutsi kamerari, aktoreak dira mugitu behar direnak.
- Sakatu "rec" botoia akzioari ekin baino segundo batzuk lehenago.
- Istoria guztia kontatzeko aukera emango dizun hartualdi kopurua duzula ziurtatu.
- Saia zaitetz zooma ez erabiltzen (baldin eta istorioa kontatzeko guztiz beharrezkoa ez bada).

### **Bideo ona nola egin**

Osa ezazue taldea:

- Sei lagunetik gorako taldeak konplikatuak izaten dira erabakiak azkar hartu behar direnean eta hirutik beherakoak, berriz, txikiegi gertatzen dira, ardura gehiegi hartu behar izaten baitituzte taldekideek.

Zehaztu gai nagusia eta bideoaren helburua.

- Egiaztatu taldekide guztiek dutela egingo den produktuaren gaineko ikuspegi berbera.
- Nori zuzendua izango da bideoa?
- Zein mezu helarazi nahi diezue ikusleei?

Zehaztu zuzen eta egoki nola gauzatuko duzuen bideoa:

- Zuzenean grabatuko duzue? Ekintza jarraitua izango da? Etenak egingo dira? Muntaia behar izango da?
- Animazioa edo panpinak erabiliko dira?
- Eszenatokiak erabiliko dituzue? Soinuak? Arropak? Musika?
- Nola eutsiko zaio ikusleen arretari?

Lanen eta funtzioen banaketa:

- Nork erabiliko du kamera?
- Nork idatziko du gidoia?
- Nork sortuko du storyboard delakoa?
- Nork jardungo du aktore lanetan?
- Nork editatuko du bideoa?
- Nork sor ditzake kreditu-tituluak?
- Nork egin ditzake animazio-lanak ordenagailua erabilita? PowerPoint? Txotxongiloak? Irudiak? Marrazkiak?

Storyboarda sortu

- Komiki erako istoriotxo prestatu, ekintza nola gauzatuko den erakusteko.
- Erantsi testu-gidoia, baldin eta elkarrizketak badaude.
- Adieraz ezazu musikak non hasi behar duen eta non amaitu.

Entseguak egin

- Non egingo dira entseguak?
- Zer beharko duzue entseatzeko?
- Jantziak ere probatu behar dituzue?
- Bideo guztia segidan grabatzeko, ala eszenaz eszena egiteko izango dira entseguak?

Grabaketa

- Ziurtatu grabaketa gauzatzeko beste bateria daukazuela.

- Argitasuna behar adinakoa da? Saihestu itzal gogaikarriak.
- Grabatzen hasi aurretik, zenbatu bostera arte. Bideoa hobeto irtengo da zaratarik, mugimendurik... ez badago.
- Ibili astiro hurbiltzen zarenean, aktoreen mugimenduak aldeztu aurretik prestatu eduki eta saiatu zooma ahalik eta gutxien erabiltzen.

#### Hartu behar beste denbora

- Planifikatu lana. Bideo-grabaketak egiteko, askotan, uste baino askoz denbora luzeagoa behar izaten da.
- Denbora luzea eskatzen du bideoen edizio-lanak.

#### Edizioa

- Erabili kamera-angelu eta hartualdi ezberdinak eta, horrela, editatzen duzuenean, emaitza interesgarriagoa, erakargarriagoa eta berezia lortu ahalko duzue.
- Editatzean, fade in/out eta bestelako efektuak erabili ditzakezue trantsizioetarako.

#### Errespetatu pribatutasuna eta copyrighta

- Baduzu bideoan irtengo diren pertsona guztien baimena beraien irudia erabiltzeko?
- Grabatzeko erabiltzen duzuen lekua publikoa ez bada, baimena eskatu behar duzue.
- Soinu-banda egiteko, erabili jatorrizko materialak, edo copyrightik ez dutenak, edonork erabiltzekoak, edo baimenduak.

## NOT IN MY TOWN LEHIAKETAREN OINARRIAK

### Parte hartzeko baldintzak

Bideoan ageri diren pertsonen % 90 mailari dagokion adin tartekoak izango dira (11-14 urte / 14 urtetik gorakoak).

[www.ametxgazteria.net](http://www.ametxgazteria.net) web orrian, Gaztetxokoan eta Gazteentzako Informazio Bulegoan izena emateko eskuragarri dagoen orria bete behar dute partaide guztiek. Ereku guztiak bete behar dira, ezinbestean eta zuzen. Partaideren batek horrela egin ezean, lehiaketatik kapon uzteko eskubidea izango dute antolatzaileek. Izena emateko epea: 2014ko irailaren 12tik 2014ko azaroaren 18ra. Ezarrita dagoen epearen barruan aurkezten ez diren bideo guztiak automatikoki geratuko dira lehiaketatik kanpo.

### Bideoen aurkezpena

Bost minututik beherako iraupena duen bideoa aurkeztuko dute lehiaketan parte hartu nahi dutenek. Hizkuntzarik erabiliz gero, euskara, gaztelania edota ingelesa izango dira.

Bideoa jatorrizkoa izango da, ez-komertziala, telebistan eman gabea, beste ezein lehiaketatan saritu gabea eta, nola ez, hedagarria. Horretarako, bertan parte hartzen duten pertsonak (hala banaka nola taldeka) arte-elementuak erabili ahalko dituzte, musika, irudiak edo egoki irizten dieten beste edozein, kasurako.

Bideoak formatu digitalean entregatuko dira Gaztetxokoan edo Gazteentzako Informazio Bulegoan.

Komenigarria da -derrigorrezkoa izan ez arren- bideoak 16:9 formatuan egitea. Bideoen emanaldia abenduaren 22an izango da, Not in My Town Gauero izeneko galan, iluntzeko 20:00etan.

### Sariak

11-14 urte -Epaimahaiaren saria 200€ dendariak elkartean baleetan  
-Ikusleen saria 140€ dendariak elkartean baleetan  
(webgunean egingo den bozketaren bidez)

+14 urte - Epaimahaiaren saria 360€ dendariak elkartean baleetan  
- Ikusleen saria 280€ dendariak elkartean baleetan  
(webgunean egingo den bozketaren bidez)

Sari banaketa 2014ko azaroaren 22an izango da. Sariak banatzeko galan bideoak ikusiko dira, eta orduan jakinaraziko da zeintzuk diren irabazleak.

Ezaugarri jakinen bat dela kausa, bideoetako batek/batzuek aipamen berezia merezi duela/dutela uste izanez gero, antolatzaileek sari bereziak emateko eskubidea edukiko dute.

### Epaimahaia

Honakoak izango dira epaimahaikideak:

- Ametxgazteriaren ordezkari bat.
- Ikastetxeen ordezkari bat.
- Zine zuzendaria edo arlo horretan aditua den pertsona bat.

### Ikusleen saria

[www.ametxgazteria.net](http://www.ametxgazteria.net) web orrian egingo den bozketaren bidez erabakiko da ikusleen sariaren irabazlea nor den. Izena ematen den egunaren biharamunetik aurrera ikusgarri egongo dira bideoak, eta abenduaren 21ko gaueko 23:00ak bitartean boto gehien jasotzen duena izango da irabazlea.

**Harremanetarako**

Zalantzaren bat izanez gero, edo informazio osagarria eskatzeko, harremanetan jar zaitezke antolatzailleekin:

Ametx gazteria

[gazteinfo@amtx.net](mailto:gazteinfo@amtx.net)

Twitter: @amtxgazteria